

Maria Gonzalez Gorosarri
kazetaria eta ikertzailea



Ich bin Charlie, Je suis Pegida

Parisko atentatuen berri iza-
tean, sare sozialetan #Je-
SuisCharlie traola zabaldu
zen, "Charlie Hebdo" aste-
kariko erredakzioan hilda-
ko langileekiko elkartasu-

nez. Orduan, Europako presidentek
lelo bera hartu zuten, herriaren buruza-
gi zirela adierazteko. Espainian Twitte-
rrek arrazismo argia erakutsi zuen, egu-
neko joeretako (*trending topic*)
hirugarrena #StopIslam izan zelako,
baina Espainiako hedabideek ez zuten
horren berririk eman. Aldiz, Alemanian
nagusitu den Pegida mugimendua al-
bistegai izan da. Espainian faxismoa le-
gez goraipatuta dago; Alemanian, be-
rriz, legeak debekatu egiten du.

Parisko atentatuak eta gero, zergatiei
heldu beharrean, emozioak islatu zituz-
ten Espainiako hedabideek, musulman
"onak" badaudela erakusteko:

► «La comunidad islámica soriana do-
na sangre como repulsa a los atentados
yihadistas», EFE, 2015/01/20

► «Un grupo de fieles alerta a la Poli-
cía por el radicalismo de un imán en
una mezquita de Tudela», Eldiario.es,
2015/01/20

Eta espainiarrak ere "onak" dira:

► «Rajoy no ve riesgo de islamofobia
en España», Abc, 2015/01/08

► «La comunidad islámica resalta la
tolerancia española frente al rechazo en
Europa», El País, 2015/01/09

Hala ere, Espainiako musulmanei era-
so egin diete, baina hedabide kritikoek
bakarrik informatu dute:

► «Ataque a la mezquita central de
Madrid: 'Islam fuera de Europa'», Voz-
populi.com, 2015/01/12

► «Otros tres ataques a mezquitas en
Cádiz, Jaén y Burgos: una esvástica y
más pintadas», Vozpopuli.com,
2015/01/13

Erasoak aztertu beharrean, emozioen
berri ematen badute, hedabideek agin-
teari mesede egingo diote. Horrela uler
daiteke "Charlie Hebdo" astekariko
atentatuen albisteak eragin duen beldu-
rrari aurre egingo dion errepresioak kri-
tikarik eduki ez izana:

► «El 78% de los españoles percibe el
fundamentalismo islámico como una
amenaza», La Razón, 2015/01/14

► «La policía activa un protocolo de
medidas para identificar a 'sospechosos
árabes'», El Correo, 2015/01/14

► «Los ministros [europeos] de Exte-
riores aportan propuestas ante la 'ur-
gencia' antiterrorista», Eldiario.es,
2015/01/19

Alemaniko Pegida mugimendu isla-
mofobia, ordea, bai Espainiako hedabi-
deetan bai Euskal Herrikoetan albiste
izan da. «Mendebaldearen Islamizazioa-
ren Aurkako Europar Patriotikoak» as-
telehenero biltzen dira, Dresdenen. As-
teon manifestaldirik izan ez dela
albiste izan da; Lutz Bachmann buru-
zagia ustez mehatxatuta dagoelako ger-
tatu da. Alemaniarentzat, ordea, Esta-
tuak ez du faxismoa borrokatzeko
borondate nahikorik. Aste honetako Pe-
gida bertan behera geratu zen hedabi-
deetan topatu ez dugun beste arrazoi
bategatik ere: aurreko astean, Pegidak
Dresdenen egin zuen azken manifesta-
zioarekin batera, Khaled Idris Bahray,
Eritreako 20 urteko gaztea, kolpez hilda
agertu zen. Tokiko hedabideek salatu
arte, baina, Poliziak ez zuen odoletan

agertu zen gaztearen gorpuan «indarke-
ria zantzurik» antzeman. Pegidaren as-
teleheneroko manifestazioak direla-eta,
Dresdenen errefuxiatuak ez dira kalera
ateratzen eta, ateraz gero, beti taldean
doaz, "TAZ" egunkariak jaso bezala.

Pegidak Alemaniako mugimendu fa-
xistaren aldarrikapenatariko bat baka-
rrik hartu du: islamofobia. Islamari era-
so egitea juduak iraintzea baino
nabarmen errazago toleratzen da. Faxis-
moaren egungo sorlekua Alemania ko-
munista izandako eskualdeetan koka-
daiteke eta, horrexegatik, jihadismoa-
ren erro bertsuak ditu: txirotasuna eta,
beraz, hezkuntzarako sarbide mugatua.
Azken manifestazioetan Pegidak "Je
suis Charlie" leloa erabili du. Alemania
komunistan erreformen alde astelehe-
nero egiten ziren manifestazioetako
"Wir sind das Volk" ["gu gara herria"] le-
loa aurrerago ere erabili zuen.

Hala ere, kolpez hilda agertu zen Kha-
led Idris Bahray-ri buruzko albisteia Ale-
maniako hiru hedabide nagusik baka-
rrik eman dute: ARD telebista
publikoak eta TAZ eta Neues Deutsch-
land egunkari ezkertiarrek. Aurreko do-
mekan Berlinen egindako manifestazio-
aren berri eman zuten hirurek: "Gu
Khaled gara", lelopean. •



Pegida mugimendu islamofoboak astelehenetan deitzen duen elkarretaratzea.

Robert MICHAEL | AFP

osasuna / geltokiak / komunikazioa

3 BEGIRADA: